

Eraikuntzako langile bi hil dira Urnietan eta Amurrian

Gaur egun beltza da langileen osasunerako eta bizitzarako, eraikuntzako bi langile hil baitira Urnietan eta Amurrian. Urnietan, goizeko lehen orduan, PAVIMENTOS ZARRA enpresako 59 urteko P.J.F.A langilea hil da, hormigoi-kamioiaren lumak jota, ibilgailua ezegonkortu eta euskarrietako bat galtzeagatik irauli denean. Amurrian, 54 urteko langile bat, 10:30 inguruan, altueratik erori da obra bateko aldamioan zegoela.

Lehenik eta behin, elkartasuna adierazi nahi diegu bi langile horien familia, inguruko eta lankideei.

Aurten, gutxienez 51 pertsona hil dira lanean (7 Araban, 19 Bizkaian, 10 Gipuzkoan eta 15 Nafarroan). Baina odoluste horren aurrean, badirudi inork ez duela ezer esaten, ez Urnietako Udalak obraren sustatzailea izan arren eta bertako langileen osasuna eta bizitza bermatzeko eginbeharra izan, ezta Amurrioko kasuan ere, altueratik erortzeak eragindako laugarren lan-istripu hilgarria izan arren.

Laneko heriotzek oinarritzko arrazoiak dituzte, eta arriskuak ezabatzeko edo murrizteko neurriak har daitezke, baina lan-merkatu gero eta prekarizatuagoan, azpikontratazio-katearen maila bakoitzean eskubideak galduz doazenean, nekez berma daitezke langileen osasuna eta bizitza.

Horregatik, LAB Sindikatuak mobilizazioaren eta borrokaren aldeko apustua egiten jarraituko du. Horrela, datorren astelehenean, urriak 18, Amurrian, Aiaraldeko Greba Batzordearekin batera mobilizatuko gara 18:30ean Herriko Plazan eta asteartean, urriak 19, Urnietan mobilizatuko gara gehiengo sindikalarekin batera 13:00etan Udaletxearen aurrean.

Patronalak lan-baldintza txarrak inposatzen badizkigu eta administrazio publikoakitsuak, gorrak eta mutuak badira langileen odoluste horren aurrean, LABetik badakigu alternatiba bakarra mobilizazio sindikala eta soziala dela. Hori da bidea.

Euskal Herrian, 2021eko urriaren 15ean